

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Ingelesen hilerriari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztuen du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Ingelesen hilerriak, Urgull mendian, baita Urgulleko arkitektura- eta ondare-multzoaren zati handi batek ere, hamarkada asko daramatzate oso egoera txarrean. Udalak dioenez, duela gutxi ingurua birgaitu dute, baina ez da nahikoa, argi eta garbi. Elementu arkitektoniko asko graffitiz beteta daude oraindik, edo oso bandalizatuta daude.

Urgull mendian ez dago banku bat ere graffitirik gabe, horietako askok urteak daramatzate margotuta, eta Udalak ez du egokitzat jo pintada horiek garbitzea. Pintada horietako askok eduki politikoa eta iraingarria dute, eta, beraz, Udalak are bizkorrago jardun beharko luke.

KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

1. Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Urgull mendiko sarbideak kontrola ditzala, bai eta eguneko eta gaueko jarduerak ere, era horretan mendia bandalizatzen duten pertsonak atzeman eta zigortzeko.



PP Talde Politikoa
Grupo Político PP

2. Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio sentsibilizazio-kanpaina bat abiaraz dezala, hiriko elementu nagusi gisa, Urgull mendiak duen ondare- eta ingurumen-balio izugarria azpimarratzeko.
3. Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio lehenbailehen has dadila Ingelesen hilerrria osorik zaharberritzen.

Donostia, 2024ko ekainaren 21ean.

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularreko bozeramailea